



## Haur abesbatzekin hasiko da gaur 38. Abesbatza Lehiaketa

**TOLOSA ▶** Polifonia eta Folklore ataletan ere  
lehiatuko dira helduen abesbatzak, Leidor aretoan ▶ 2,3



Accentus koru frantziarrak eskaini zuen atzo lehiaketaren inaugurazio kontzertua. E. EZEIZA

**NAGORE LIZARDI ▶** REALEKO JOKALARIA

«Bidea zabaltzen  
ari gara eta hori da  
garrantzitsuena niretzat»

Elduaindarra Superligan jokatzen ari  
da Realeko nesken taldearekin ▶ 6



Nagore Lizardi. LEIRE MONTES



**Asteburuan, zaldi ibilaldi  
«arrakastatsua»**

**LEITZA ▶** 65 zaldun ibiltarik hartu zuten  
parte Aurrera Perra taldekoek antolatutako  
Beintza-Labaienerainoko txangoan ▶ 7

**LEITZA ▶**

**Vancap lantegiko  
sutean suhiltzaile  
bat zauritu da**

Atzo goizaldean, paper fabrikako  
sutean lanean ari zela gertatu zen ▶ 5









GIZARTEA ▶

# Ahotsak plataforma Tolosaldean osatzeko bilera egingo dute

Bihar, 20:00etatik aurrera, «talde honetan parte hartzeko interesa duen herritar oro» bertara daiteke Kultur Etxera

IÑIGO ASENSIO

Bihar 20:00ean, Tolosako Kultur Etxean, Ahotsak plataformak tolosaldean osatzeko duen taldearen lehen bilera burutuko dute. Uztaileko aurkezpen ekitaldian izena eman zuten emakumeei zuzendua dago, baina baita «izena eman gabe talde honetan parte hartzeko interesa izan dezaketen emakume guztiei ere», dio Onintza Lasa Ahotsak-en Tolosaldeko sustatzaileak. Olatz Peon eta Silvana Ostizarekin batera ariko da lanean ekimen honetan. Olatz Peonen hitze-



Goirizelaia, Bilbao, Alzela, Zabaleta, Ezenarro eta Piñol iragan uztailean eginiko aurkezpenean. NOELIA LATABURU

tan, «parte-hartzaileekin hartu-eman hasteko aukera izango da bilera hau. Bertan, plataformak nazio mailan zein helburu dituen eta bere aldetik Tolosako taldeak zer egin dezak azaldu nahi dugu».

Peonek aipatu duenez, «harrera ona espero dugu; uztailean egin zen aurkezpenean erantzuna izugarria izan zen eta oraingoan ere jendearen erantzuna ona izango delaren itxaropena dugu». Onintza Lasaren ustez, «atxikimen personaleko plataforma da Ahotsak, eta helburua gizarte esparru guztietako emakumeen parte-hartzea sustatzea da, sentsibilitate ezberdineko emakumeak biltzea, alegia». Lasak dioenez «politikagintzan Ahotsak oinarriek duten garrantzia ohartzeko ari dira. Munduko hainbat tokitan emakumeek bake prozesuak aurrera eramatean garrantzia handia izan dute eta horregatik ulertu behar da Ahotsak garrantzia. Gauzak egin behar dira, gauzak egiteko aukera dago eta horretarako emakume bakoitzaren parte-hartzea garrantzitsua da», dio Onintza Lasak.

ARETO FUTBOLA ▶

## Laskorain taldeak bosna berdindu zuen Usabalen

GSi Bilboren aurkako partida «gogorra» izan zen, eta berdinketa baino ez zuten lortu

I. ASENSIO

Norgehiagoka «gogorra eta latza» jokatu zuen Laskorainek joandako larunbatean Usabalen. GSi Bilboren aurka bosnako berdinketa erdietsiz. Ikastolakoek ez zioten batere ondo ekin neurketari eta bilbotarrek aurre hartu zuten markagailuan. Etxekoak gol aukera bakar bat egiteko gai izan ez ziren bitartean, beren aurkariek 3 gol «ikusgarri» lortu zituzten, aldageletara 0-3koarekin joan zirelarik. Bigarren zatian, berriz, Laskoraingoek jarrera aldatu eta bosgarren minuturako 4 gol lortu zituzten, markagailuan aurre hartuz. Hainbat minututan jokoa nahiko parekatuta izan zen, baina kanpotarrak 2 golekin berriz ere aurretik jarri ziren. Amaierarako sei segundo falta zirela Telletxeak berdinketa lortu zuen puntu bat etxean utziz.

David Pradosen neskek 2-1 irabazi zioten Zalbiari eta Jorge Alonsoren mutilek 2-3ko garaipena lortu zuten.

XAKEA ▶

## Garaipenak Xakeko Gipuzkoako Txapelketan

I. ASENSIO

Aurreko larunbatean Gipuzkoako Banakako Xake Txapelketa hasi zen. Hainbat urte eta gero, Tolosak 3. mailako txapelketako egoitza izatea lortu du, Azkoitia eta Donostiarekin batera. Gauzak horrela, tolosaldeko jokalariek mailaz igotzeko 3 postuetako bat lortzeko aukera izango dute.

Garbi geratu da lehen postu horiek lortzea zaila izango dela baina asko sufritu zuten arren, favoritok guztiek garaipena lortu zuten txapelketa-ko estreinaldian.

SASKIBALOA ▶

## Arazorik gabe garaipena Tolosa Aralarrek Usabalen

98-62koa lortu zuen larunbat arratsaldean Jarrileros talde bizkaitarraren aurkako lehia

I. ASENSIO

«Garaipen erraza» lortu zuen Tolosa Aralarrek joandako larunbatean Jarrileros talde bizkaitarraren aurka jokaturiko norgehiagokan. 98-62ko emaitza lortu zuten tolosarrek, «es-

pero zitekeen» garaipena eskuratu. Lehenengo minutuetan jokoa onegia izan ez bazen ere, segituan zuzendu zuten jokoa eta horrek markagailuan ere islada izan zuen. Datorren asteburuan Bilbo aldera joko dute Jimmy Perezen mutilek La



La Salle Bilbao taldea izango dute aurkari tolosarrek asteburuan. HITZA

salle Bilbao taldearen aurka indarrak neurtzeko.

Beste taldeei dagokienez, Kadetetan 54-40 irabazi zuen Tolosak Easo Basoa taldearen

aurka eta Villabonak galdutuz egin zuen C.D. Internacional-en aurkako partidari. Infantiletan, bi taldeen arteko derbian, zaharrenak nagusitu ziren.

iragarki laburrak ▶



**Anoeta.** Harrizko etxean 90 m2ko etxebizitza eraberritzeko, kanpora begira.

**Belauntza.** Pabillioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

**Belauntza.** Bifamiliarra, bi solairu eta 270 m2ko lursailarekin.

**Berastegi.** Familia bakarreko etxea salgai, 3.500 m2ko lursailarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Zabalaretan. Etxebizitza salgai.

**Tolosa.** San Frantzisko, 75m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

**Tolosa.** Errementari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukaldea, eta bainugela. Berritua.

**Tolosa.** Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m2ko egongela, bainugela eta sukaldea.

**Tolosa.** Santa Klara, 90 m2ko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin.

**Tolosa.** Benta Haundin, bi solairuko etxebizitza salgai. Eraberritzeko.

**Tolosa.** San Esteban, kanpora begirako 100m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

**Tolosa.** Maituna zaharra. 15 garaje berri, guztiak itxiak. 30 m2tik aurrera.

Karga-jasogailuen bitarteko bidea. Eraikitze bidean.

**Tolosa.** Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erauzgailuarekin. 9.480 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Ugarran Goena, bi etxebizitzako baserria salgai, 110m2 solairu bakoitzeko. Berritu beharrekoa.

**Ventosa (Errioxa).** Hiru solairuko familia bakarreko etxebizitza salgai urbanizazio pribatuan.

**Etxebizitza alokairuan.**

Alokairuan dauden etxebizitzetan inguruko informazio gehiago jaso daiteke bulegora bertara joanda.

LEITZA ▶ EZBEHARRA

# Vanpac lantegiko sutean suhiltzaile iruindar bat zauritu da

Atzo goizaldean paper fabrikako sutean lanean zegoela lurretik sei metrora zegoen fardo bat gainera erori zitzaion

NEREA URBIZU

Iruñeko suhiltzaile taldeko langile bat zauritu zen atzo goizaldean Leitzako Vanpac paper enpresan izandako sutean, lanean ari zela. Istripua 10:15ak aldera gertatu zen, 37 urteko suhiltzaileari 5 eta 8 metro bitartera zegoen paper fardo bat gainera erori zitzaionean. Pel-bisa eta izterrezurra hautsi ditu, antza.

Nafarroako Gobernuak helikoptero bat hurbildu zen bertara, Leitzako gasolindegia berriaren aurretik dagoen lantegira. Leitzako osasun zerbitzuetako kideek artatu zuten lehenengo eta ondoren helikopteroan eraman zuten Nafarroako Ospitalera, «kontu handiz, oraindik ere kalteen berri ez dutelako».

Sute handia izan zen atzoko goizaldean. Leitzako papera birziklatzeko enpresa bi eraikinetan dago banatuta, eta horietako bat ia erabat kiskali zen. «Kanpotik ez du ematen ezer duenik, baina barrutik osotara kiskali zen, ez zegoen ezer egiterik», gogoratu zuen Leitzako suhiltzaile boluntarioetako batek. «Gainera, erreka-aren aldera ematen duen aldea da kaltetuena». Dirudienez, oraindik ere kea ateratzen zaio paper fabrikari.

Herriko kamioilari bat bertatik 04:35a aldera pasa zenean sutea ikusi zuen eta abisua eman zuen. Leitzako suhiltzaile boluntarioak joan ziren orduan, kamioiarekin, baina «ordurako dena kiskalita zegoen», zioen Leitzako boluntario batek. «Gu 09:00ak aldera joan ginen, beste suhiltzaileak iritsi zirelako. Bitartean suhiltzaileei errekatik ateratako ura kamioietan sartzen ibili ginen, kamioiek beti ura izan zezaten». Arriskutsuena, Leitzako bonberoen arabera «uralitazko egitura gainean erortzea zen: beroarekin urten bezala hasi zitezkeen eta azkenean erori». Horrelakorik ez zen gertatu, baina ikusi zuten paper fardo

horietako bat erortzen. Hori gertatu zitzaion suhiltzaile iruindarrari: «gainean erori zitzaion fardo horietako bat».

Sutearen ondoren

Oraindik argitzeke dauden arrazoiak izan ziren sua eragin zutenak. Kalte materialak handiak izan diren arren, suhiltzaileak kenduta, ez da beste inor zauritu, Vanpac paper fabrikari gauetan ez baitute lanik egiten. Azkenean, 07:30ak aldera lortu zuten sua kontrolatzea.

Egindako lehenengo gauza «lantegian zegoen kamioia ateratzea izan zen», sua har ez zezan. Ondoren, gasoil deposito bat ondoan zegoela ikusita «kontu handiagok ibili ginen, posiblezko eztanda ekiditeko». Orduantxe bukatu zen leitzazaren lana; 09:00etarako edo, «joan egin ginen, profesionalak lanean utzita: guk geure lana egin genuen».

Hala ere, bertan geratu ziren berriro sua berpiztu ez zedin: «dagoen hautsa, paperak askatzen duen hautsa da lantegian arriskutsuena, horrek sua berriz piztea erraz baitetzake». Horregatik, arratsaldeko orduetan zehar paper fardoak

KAMIOILARIA

04:35ak aldera kamioilari baten abisua jaso zuten Leitzako suhiltzaileek: 05:00etan han ziren

LEITZAKOEN LANA

Leitzako suhiltzaile boluntarioen lanari esker suhiltzaileek ura izan zuten kamioietan goiz osoan zehar

beste norabaitera eramanen dituztela esan zuten suhiltzaileek, «arriskiak txikitzeko». Aukeren artean, zabortegiak daude. Leitzako suhiltzaile baten arabera «suhiltzaileak oraindik ere baliteke bertan geratzea gaur goizalde arte».

Leitzako suhiltzaile boluntarioen laguntza Iruñeatik esker-tu zuten arratsaldean, zuzenean haiei deituz. Leitzako suhiltzaile boluntarioez gain, Iruñeako, Zangozako, Altsasuko eta Tafallako parkeetako suhiltzaileak izan ziren bertan.

BALIARRAIN ▶ AGENDA 21

## Kultur gelan bilduko dira herriko diagnostia aztertu eta hobetzeko asmoz

Bozue 21ek bilerak egingo ditu, urtean zehar egindako diagnostikaren zirriborroa aurkezteko



Abaltzisketan urriaren 20an aurkeztu zuten zirriborroa. HITZA

N. URBIZU

Larunbatean, 16:00etan herri batzarra egingo dute Baliarraingo kultur gelan, Baliarraingo Udalak deituta. Bertan, Agenda 21 prozesua dela-eta osatu den diagnostikoaren lehen zirriborroa aurkeztuko dute eta herritar guztien artean atzeman dituzten hutsuneei konponbideak bilatzen saiatuko dira.

Diagnostiko horretan mota guztietako gaiak landu dituzte: biztanleria, etxebizitzak, ekipamenduak, ekonomia, ingurumen... Honetan, datu objektiboak biltzeaz gain, elkarrizketa bidez lortutako herritarren iritzia ere kontuan hartu dira.

Diagnostikoa erabat irekia da eta Udalak herritar guztien ekarpenak jaso nahi ditu. Gainera, diagnostiko horretatik abiatuta, herrirako etorkizune-

rako plangintza definitu egin nahi denez, «garrantzitsua» da herritarrek batzar honetan parte har dezaten; herrian izan daitezkeen arazoak, hobekuntzak eta ideiak jasotzeko «jendearen beharra ia ezinbestekoa da, horregatik da, hain zuzen, garrantzitsua herritarren parte-hartzea». Izan ere, «biztanleek inork baino hobeto dakite zeintzuk diren beharrak eta gabeziak».

Bilera aurretik diagnostikoa irakurri eta errepasatu nahi duenak, ikusgai izango du Baliarraingo udaletxean bertan. Interneten ere zintzilikatuko dute, [www.tolomendi.net/agen](http://www.tolomendi.net/agen) da 21 web orrialdean, hain zuzen ere.

KULTURA ▶

## Idoia Sanchez ipuin kontalaria eskualdean

Gaur, 17:30ean, Irurako haur liburutegian Idoia Sanchezek eskainitako ipuin kontaketa izango da. Hurrengo herrietan ere izango dira: Alton hilaren 8an egongo da, Berastegin eta Elduainen 17an, eta Baliarrainen eta Amezetan, aldiz, 23an. Herri bakoitzeko orduak eta lekuak aurrerago zehazten joango da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Idoia Sanchezek eskainitako ipuin kontaketa hauek Galtzaundi euskara taldeak antolatuta ditu.

ALEGIA ▶

## Yolanda Arrietarekin irakurketaz, etzi

0 eta 6 urte bitarteko umeak dituzten gurasoei zuzendutako hitzaldia izango dute etzi interesatu guztiek. Alegiko Udal Liburutegian burutuko dute hitzaldia. Ostiralekoa 3. saioa da, eta 14:30etik 16:00etara izango da. Yolanda Arrietak gurasoei haur-errentzako liburuak nola aukeratu behar diren, nola irakurri eta nola kontatu ipuinak, besteak beste, argituko die. Galderak egiteko aukera ere zabaldu dute, aurreko bi saioetan egin duten bezala.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km, liburuarekin. 18ko lllantak eta txetua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Telefono zenbakia: 943 65 41 43.

**Egurra.** Sutarako pago egur lehorra saltzen da. Etxera zuzenean entregatzen da. Telefono zenbakia: 615 75 57 62.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

NAGORE LIZARDI ▶ REALEKO JOKALARIA

# «Bidea zabaltzen ari gara, eta hori da garrantzitsuena niretzat»

Realeko nesken taldearekin Superligan ari da Nagore Lizardi elduindarra; kirolean emakumearen egoera hobetzeko lanean tinko jarraitu behar dela dio

LEIRE MONTES

Txikitatik zuen ilusioa bete du Nagore Lizardi (Elduain, 1982), futboleko jokatzeko, Realean, eta Lehen Mailan. Hiru desioak batera, gainera. «Duela zortzi urte nork esango zidan niri...», dio, irribarretsu, el-karrizketa hasi baino lehen. Hala jarraitu du solasaldi osoan, eta gogotsu erantzun die TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK egindako galderei.

**Betidanik gustatu izan al zazu futbola?**

Beti izan dut gogoko, bai. Baina, era berean, bizitzak horra eraman nauela esan daiteke. Izan ere, Elduainen nire adineko neska gutxi zeuden eta mutilekin aritzen nintzen beti jolasean; futboleko soilik ez, edozein kirolatan.

**Gero talderen batean eman al zenuen izena?**

Ibarrako Uzturpe Ikastolako nesken taldean aritu nintzen eskola garaian, eta BBBn (Baxilergo Bateratu Balioaniza) hasi nintzenean, duela 11 bat urte, Añorgara joan nintzen. Hasieran hondartzan jokatzen genuen, eta gero zelai handian. Zortzi urte pasatu nituen Añorgan, Itziar Bakerorekin. Asko ikasi nuen urte horietan, dakidan gehiena, esango nuke. Eta 2004. urtean Realeko nesken taldean hasi nintzen.

**Aukeraketa prozesu gogorra pasatu behar izan zenuten, ezta?**

Gipuzkoako hainbat taldetako 100 bat neskek hartu genuen parte probetan. 100 horietatik 25 aukeratu zituzten lehenik, eta gero behin betiko 19ak. Eta hor nengoen ni! Poz handia hartu nuen aukeratu izan nintzela jakin nuenean. Probatzera joan nintzen, egia esan, eta txikitako ilusioa egi bihurtzen zela ikustea...

**Hirugarren denboraldia duzu hauxe, eta jada eskarmentua baduzu. Baina ez da, hala ere, urte erraza izango, Superligan ariko baizarete lehendabiziko aldiz.**

Lurreldeko mailan hasi ginen, eta 2. mailara igo ginen bigarren denboraldian. Aurten, hirugarrenean, Superligan ari gara. Eta, bai, nabaritu dugu aldaketa. Maila dezenteko altuagoa da, fitxaketa mugimendu han-



LEIRE MONTES

## EUSKAL TALDEAK

«Athletic, Lagunak eta Realga gaude Superligan. Denon artean indarra egiteko aukera, ea gauzak aldatzen diren»

diagoa dago, batzuk profesionalak dira... Exijentzia maila dezenteko igo da.

**Zer moduz hasi zarete?**

Ez da erraza izango denboraldia, baina gure lehen urtea da, eta maila mantentzearekin eta dakigun ondoen jokatzearrekin, konforme. Oso zaila izango da.

**Nolako giroa duzue taldean?**

Urte hauetan ez da asko aldatu; aurten, adibidez, hiru aldaketa besterik ez dira izan taldean. Entrenatzaileak ere berak dira: Iñigo Dominguez tolosarra eta Garbiñe Etxebarria oiartzuarra. Koadrila baino, familia handi bat gurea esango nuke nik. Oso ondo konpontzen gara gure artean, giro paregabea dago; horri esker ere



egiten zaigu errazago egunero-egunero entrenatzera joatea.

**Nola moldatzen zarete ikasketak edo lana futbolarekin bateratzeko?**

Gogorra da. Jokalari gazteenek 15 urte dituzte, eta beste bat eta biok gara zaharrenak, 23-24 urterekin. Ikasten edo lanean ari gara gehienak eta, azkenean, egun osoa pasatzen dugu batera eta bestera. Arratsaldero joaten gara Zubietara entrenatzera, astelehenetan izan ezik. Larunbat askotan ere aritzen gara, eta igande goizetan izaten ditugu partidak. Sakrifizio handia da. Eta ez bakarrik guretzako: lagunak, batez ere familia... Haiengatik gaude gauden lekuan. Ez dago erra-

## REALEKO HAUTAKETA

«Poz handia hartu nuen aukeratu nindutenean. Probatzera joan nintzen, eta txikitako ilusioa egi bihurtzen zela ikustea...»

za, baina aukera guztiak aprobetxatu behar ditugu. Gainera, neskak izanda, ez da hainbeste aukera izaten... Hala ere, nik meritu handiagoa ematen diet isil-isilean aritzen direnei: korrikalariak, mendizaleak...; ez bazara komunikabideetan agertzen ematen du ez zarela ezer, eta lan ikaragarria dago atzetik.

**Zergatik hainbeste desberdintasun mutilekiko?**

Ez da soilik futboleko, kirol guztietan gaude gutxietsita emakumeok. Horregatik jarraitu behar dugu hor. Adibidez, orain hedabideek aintzat hartzen gaituzte, aldaketa handia nabaritu dugu Superligan gaudenetik. Tristea da honaino iritsi behar izatea horretarako;

## GERTUTIK ▶

**Izen-abizenak.** Nagore Lizardi Iturriza.

**Jaioteguna.** 1982ko azaroaren 24a. 23 urte ditu.

**Herria.** Elduain.

**Taldeak.** Uzturpe Ikastola, Añorga (8 urte) eta Realga (aurten 3. denboraldia).

Euskadiko Selektzioarekin ere jokatu du.

**Postua.** Eskuineko hegalekoa.

**Zelai bat?** «Realeko nesken taldearekin lehendabiziko partida, Berazubini. Sekula ez nuen Tolosako zelaietan jokatu, eta oso berezia izan zen nire taldearekin etxean aritzea».

**Jokalari bat?** «Mari Paz Azagra azkoitiarra. Orain arte Lagunak-en jokatzen zuen, eta aurten Rayo Vallecanon ari da. Jokalari eta pertsona bezala, ikaragarria da».

**Eta gizonetako bat?** «Mikel Aranburu. Jokalari osoa da. Eta, gainera, etxekoa».

**Talde bat?** «Realga, zalantzarik gabe».

baina, behintzat, orain gehiago existitzen gara. Gaur egun arte musutruk aritzen ginen, eta orain primak ematen hasi zaizkigu... bada zerbait.

**Euskal Herriko hiru talde zaudete Superligan. Aurrerapausoa bada hori, ez?**

Athletic, Lagunak eta Realga gaude. Denon artean indarra egiteko aukera dugu, bai. Ea pixkanaka-pixkanaka gauzak aldatzen doazen.

**Zer jarrera sumatu duzue inguruan?**

Zubietan bertan oso ondo hartu gaituzte. Futbolariak, teknikoak... jarraitzen gaituzte eta galdetzen digute ea zer moduz doakigun. Inongo arazorik ez dugu izan haiekin, justu kontrakoak baizik. Kalean ere gero eta interes handiagoa nabaritu dugu guregan. Azken finean, Realak jendea erakartzen du, eta horrek laguntzen digu. Nik usten dut gu ari garela besteek bidea irekitzen. Orain Gipuzkoako klubetan ari direnek izan dezakete motibazioa eta ilusioa norabaitera iristeko, Realeko nesken taldea izan daiteke haien jomuga, mutilek Realeko lehen taldea helburu zuten bezala.

**Luzaroan jarraitzeko asmorik?**

Nire ilusioa bete dut: futboleko aritzea, Realean, eta lehen mailan. Oso pozik nago, baina ez dut neure burua luzaroan hemen irekitzen. Istoria honek beranduegi harrapatu nau. Nigan baino ondoren datozenez gauden pentsatzen dut. Bidea zabaltzen ari gara, eta hori da garrantzitsuena niretzat.

LEITZA ▶ AISIA

# Antolatzaileak «pozik» zaldi ibilaldiarekin

## 65 zaldun ibiltarik hartu zuten parte Beintza-Labaienerainoko txangoan

NAIARA GARZIA

Asteburuko ibilaldiaren emaitzarekin oso pozik gelditu dira bai antolatzaileak, baita parte-hartzaileak ere. Patxi Sagastibeltza antolatzaileetako baten ustez «zoragarria izandu da». Eguraldiak ere izan du zerikusirik, oso giro ona eman baitzuten astebururako eta iragarpenak ez zuten hutsik egin. «Norbaitek esanez gero aizu, aukeratu eguraldi bat, ez genuke egin duen bezain ona aukeratuko». Larunbat gauean ere halako gau-giroa egin zuen, non batzuk kanpoan lo egitea erabaki zuten.

Dena antolatu bezala joan da, gora-beherarik gabe. 09:30ean gosari txikia egin ondoren herria zeharkatu zuten Santa Krutzetik gora abiatzeko. «Herriko ateera oso polita izan zen, jende asko bildu baitzen balkoietan gu ikustera».

### PATXI SAGASTIBELTZA AURRERA PERRA TALDEKO KIDEA

«Herriko irteera oso polita izan zen, jende asko bildu baitzen balkoietan gu ikustera»

«Parte-hartzaileak erabat eskertuta zeuden eta zorionak besterik ez zizkiguten ematen»

10:00ak aldera atera ziren eta 13:00etan puntuan, esan bezala. Otsolan zeuden, bazkaltzeko prest. «Presarik gabe ibili ginen, jendeak siesta eta guzti egin zuen han». Etortzeko garaian ere, igandean, 10:00etan atera ziren. «14:00etatik 14:30era denak hementxe ginen. Otsolan sobratu zen jana Inguruartera ekarri genuen, helduerara».

Ikusi dituzten parajeak ere ikaragarri politak izandu dira. «Jendeak, hormigoi gehixeago duen lekutik etorri zirenak, ez zuten sinisten ikusten zutena. Parte-hartzaileak oso eskertuta zeuden eta zorionak besterik ez zizkiguten ematen». Haien arteko giroa ere ezin hobea izan da. Larunbat gauean, Labainen afaldu ondoren parranda eta guzti egin zuten, Jon Gaztelunak bere kitarra eta armonika eraman baitzituen. «Kriston juerga jarri genuen. Batzuk goiz xamar joan ziren, beste batzuk, berriz, goizeko 4:30ean parrandan zebiltzan oraindik», dio Sagastibeltzak.

Hau guztia ongi atera zedin bizpahiru laguntza ibilgailu izan zituzten asteburuan behar zituzten gauza guztiak eramateko. Horrexegatik, Aurrera Perra Taldetik Inazio Monteroarena, «Zuza eta Bitxori eskerrak eman» nahi dizkiete egin duten lanarengatik, hauek izan baitira laguntza lanetan ibili direnak: zaldien pentsuak eta jendearen trasteak eramaten, jana prestatzen... «Zaldiekin ez dute zerikusirik eta dena borondate onarekin egin dute».



**Ibilbidea.** Santa Krutzetik abiatu ziren 65 zaldun ibiltariak, eta Ezkurrako mendiak pasa ondoren, Arrarasen egin zuten hamaiketakoa. Arratsaldean iritsi ziren Beintza-Labaienera. HITZA



**Paisaia.** Txoko zoragarriak ikusi dituzte. HITZA



**Musika.** Jon Gaztelurena gaua alaitzen. HITZA



**Jana.** Larunbat goizean gosari txikia egin ondoren abiatu ziren Leitzatik, eta Arrarasko Otsola izeneko zelaietan egin zuten hamaiketakoa. Bazkalostean, jarraitu baino lehen, batzuk siesta egin zuten. HITZA

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztiaren prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

### Begoña Rezola Ibarbia

Aitor gure lankidearen ama

Une latz hauetan  
bat egiten dugu  
famiariaren saminarekin

**ETXERAINO**

eskertza ▶

### Jesus Arozena Errasti

«Azpeiti»

Anjel Arozena eta Ainaro Nazabal  
Zure benetakoa lagunak  
ZUEN MAITASUNA ADIERAZIZ  
GURE ESKER ONIK BIHOTZKOENA

(Kirru)

ZALDIBIA, 2006ko azaroaren 1a



**AGENDA ▶**

**38. ABESBATZA LEHIAKETA**

**Tolosa.** 11:00etan, Leidorren, Haur Abesbatzen Lehiaketako emanaldia; 16:00etan, Leidorren, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen saioa; 20:00etan, Leidor aretoan, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen kantaldia.

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Gaurtik aurrera irekita egongo da San Bartolome plazako komuna.  
**Orexa.** Kultur Astearen baitan, 16:30ean, udaletxeko ganbaran, haur jolasak eta merienda izango dira.  
**Tolosa.** Ahotsak plataformak bilera egingo du, bihar, 20:00etan Kultur Etxean. Emakume guztiei deia egin diete bertara daitezen.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.  
**Ibarra.** Iñaki Vergararen *Artzainaren Bizitza* txuri beltzeko 35 argazkien erakusketa Kultur Etxean.  
**Tolosa.** *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Tolosa.** Etxebeite, J.M. Germikako arbola, 3. 943 65 10 40.

**IRRATIA**

**Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.  
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Auzoko argazkien erakusketa jarri zuten ikusgai. HITZA



Haurboek ederki igaro zuten jolasetan. HITZA

**«Giro polita» Olarrain auzoan**

**TOLOSA ▶** Hainbat ekitaldiz osaturiko egitaraua izan dute asteburuan Olarrain auzoko jaien baitan; jendetsuena, mendi bizikleten travesia herrikoia




120 lagun inguruk hartu zuten parte mendiko bizikleten XVIII. travesia herrikoian. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**U**rtero moduan, aurtenera konturatzeko igaro dira Olarrain auzoko jaiak. Ostiralean ekin zieten mus txapelketarekin eta igandean baratzuri zopa jatearekin batera agurtu zituzten datoren urterarte. Tartean, ordea, hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan dute auzokideek.  
Larunbatean, esaterako, «oso giro onean» afari legea egin zuten auzotarrek Aiora eta Maitane trikitilariak alaituta. Igandea, jaien azken eguna izaki, egitarau oparoa antolatuta zuten; goizean goiz, 120 lagun inguruk hartu zuten parte mendiko bizikleten XVIII. travesia herrikoian. Ondoren haiketako egin zuten, eta gaztetxoek jolasteko aukera ere izan zuten. Bertsolariek alaituriko bazkarian elkartu ziren Olarraingo auzotarrak, eta gazte nahiz heldu, guztiak animatu ziren ondorengo dantzaldian. Azkenik, ohitura den moduan, jaietara eman zieten baratzuri zopa janaz.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Tomasa Arostegi (Bidegoian). Gaur 88 urte. muxu handi bat familia guztiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...